

Martxoak 23 matxino taldeak Goma, Kongoko Errepublika Demokratiko ipar-ekialdeko probintziako hiriburua, eta Bukavu, Hego Kivukoa, kontrolpean hartu zituenetik, Afrikako herrialde honek hamarkada luzez pairatzen duen gatazka armatua larriagotu egin da. Bi probintzia hauek Ruandarekin muga egiten dute, eta urrea nahiz koltana bezalako mineraletan aberatsak dira. Mineral hauek industria teknologikorako eta telefono mugikorren fabrikaziorako funtsezkoak dira.

2022. urtearen amaieran hasi zuen berriro erasoaldia M23 mugimendua buru duen Alianza Rio Congo aliantzak. Ruandako genozidioa pairatu zuten tutsiek osatzen dute gehienbat M23.

Gatazkak Ruandaren eta Kongoren arteko krisia piztu du. Ruandak Kongori leporatzen dio FDLR talde armatua –Ruandan tutsien genozidioaren erantzule izan ziren hutuek sortu zuten– eta beste milizia batzuk tutsiak errepresmitzeko eta zapaltzeko erabiltzea. Kinshasak –baita Nazio Batuek eta Mendebaldeko zenbait herrialdek ere– M23ri laguntzea egotzi dio Kigaliri. M23k ofizialki errefusatu du Ruandak babesten duela, eta Felix Tshisekedi presidentearen gobernuak boteretik kendu nahi duen mugimendu kongoar gisa aurkeztu du bere burua. Kongoko Gobernuak Estatutu Batuei laguntza eskatu die matxino taldearen kontra borrokatzeko. Trukean, kotxe elektrikoak, mugikorrak eta ordenagailu eramangarriak egiteko oinarritzkoak diren



KONGOARRREN AHOTSA

«Ahaztutako krisien» multzoan egon arren, gatazka larria bizi du herrialdeak

 **GIZA ESKUBIDEAK /** Ainara LERTXUNDI

Kongoko Errepublika Demokratikokoa «ahaztutako krisi» horietako bat da, egoera gordina izan arren. Urtarrilean eta otsailean, ia 10.000 bortxaketa eta sexu biolentzia kasu erregistratu zituen Unicefek, %35-45 haurrak izanik. Ricardo Martinez, MSFko logistika koordinatzailea, Goman izan zen. Bere lekukotasuna jaso du GAUR8k.

mineralak erosteko lehentasuna emango diela esan du Kongok. Egun, koltan eta kobalto bezalako mineralen erosle nagusia Txina da. Donald Trump presidentek lekua kendu nahi dio Pekini, eta Ipar eta Hego Kivu probintziak «baketzen» lagunduko diola esan dio Kinshasari. Munduko ekonomia hankaz

gora ipini zuten muga-zergak iragarri zituen egun berean, Trumpen Afrikako berriemai-le berezia, Ronny Jackson, Kongon zegoen.

Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandatariaren (UNHCR) datuen arabera, Kongon 6,7 milioi barne desplazatu daude. Otsailaren 13ra arte, 3.000 zibil hil ziren M23

eta Gobernuaren arteko borrokan, Ipar Kivu eta Hego Kivu probintzietan. Eta 1,6 miloi haur eskolarik gabe gelditu dira Kongoko ekialdean.

Pasa den urtarrilean, Goma bere kontrolpean hartu zuen M23k. 160.000 biztanle inguru ditu, eta baliabide naturaletan, batez ere mineraletan, aberatsa da Ipar Kivuko hiriburua. Ruandako mugari lotuta, produktuak atzerrira esportatzeko bide nagusietako bat da, errepide gutxi dituen eta egoera oso txarrean dauden herrialde batean.

Otsailaren 6an, Alianza Rio Congo aliantzak agintari politiko paralelo bat ezarri zuen Goman. Joseph Bahati Musanga izendatu zuten Ipar Kivuko gobernadore, eta Julien Katembo Ndaliene, Gomako alkate.

Otsailaren 16an, M23ko matxinoak Bukavun sartu ziren, Hego Kivuko hiriburuan. Milioi bat biztanle ditu. Indar Ar-

MSFko langile bat Nyabiounou eskolan, Goman, kontzientziario kanpaina batean. MSF

matuek ez zuten inolako erresistentziarik jarri. Hiritik alde egin zuten armak utzita. Zibilek eta talde armatuek hartu zituzten. Armadari sostengua emateko, probintzian dauden Burundiko soldaduak ateratzea exijitu zuen M23 taldeak.

«Hiru hamarkadaz irauten duen gatazka bati buruz ari gara. Zibilengan, emakumeak eta haurrak barne, ondorio lazgarriak izan ditu. Krisiaren ezaugarri nagusia desplazamendu errepikatuak dira. Herritarrak beren bizitza hutsetik behin eta berriz hastera behartuta daude, biolentziaren ondorioz. Pazienteek eta komunitateek kontatzen dizkiguten istorioak icebergaren punta baino ez dira», adierazi zuen Alira Halidouk, MSFren operazioen Kongoko arduradunak.

Ricardo Martinez, MSFko logistika koordinatzailea, Goman zegoen M23 sartu zenean. GAUR8rekin telefonoz egindako elkarrizketan, bere kezka azaldu zuen.

«Goman nengoen sartu zirenean. Dena geldituta egon zen egun horietan. Prezioak izugarri garestitu ziren; banketxeak itxi zituzten; administrazioa eta zerbitzu publikoak geldirik zeuden; gizon armatuak txoko guztietan. Egunez itxurazko normaltasuna zegoen arren, biolentzia handia zegoen kaleetan –izan lapurretak izan exekuzioak. Lapur bat harrapatzen dute-nean, harrikatu edo erre egiten dute guztien aurrean. Bertan nengoela, hiru pertsona erretzen ikusi nituen lapurtzeagatik–. Zibilak kezkatuta daude. Ez dakite zer opa dien etorkizunak», adierazi zuen Martinezek.

«Goma bereganatu baino lehenago, Sake hartu zuten, 27

bat kilometrotara. Ehunka zauritu egon ziren, gizon, emakume eta haurrak tartean. Gomara iritsi nintze-nean, aireportutik entzun nitzakeen bonbardaketak. Immigrazio bulegoan zegoen emakumeak egoera horretan zertara nindoan galdetu zidan. Ea gerrara nindoala bato nekien galdetu zidan. Baiezkoa erantzun nion, Mugarik Gabeko Medikuek Kongon urte asko daramatzala, badakigula non gauden eta horregatik gaudela bertan esan nion».

«Giro tirabiratsua zegoen Goman aurreko egunetan. Leherketak gero eta gertuago entzuten ziren heinean, jendea etxean sartzen joan zen, kaleak hustu egin ziren. Matxinoen eta Armadaren aldetik, erasoaldi bortitzak egon ziren hiruzpalau egunez. Egun gogorak izan ziren. Arpilatzeak ere egon ziren. Beste gobernu kanpoko erakunde batzuei bezala, MSFren biltoki bat eta farmazia bat arpilatu zituzten. Milaka hildako egon

«Ez gara jabetzen munduko alde hartan gertatzen ari denaz. Ez dugu ideiarik ere. Hain da larria han gertatzen ari dena, non ez baitakit nola azaldu», nabarmendu du Martinezek

Kongoko Osasun ministroak aditzera eman zuenez, Goman eta inguruetan urtarilaren amaieran egon ziren borroketan 8.500 pertsona baino gehiago hil ziren

Ricardo Martinez, MSFko logistika koordinatzailea, Goman zegoen M23 matxino taldea Ipar Kivuko hiriburuan sartu zenean. MSF

ziren, ez dago jakiterik zenbat hildako egon ziren egun horietan. Zanga eta putzuetan gorpuak agertzen doaz».

MATXETE ZAURIAK

Gobernu kanpoko erakundeak «Bizirauteko beraien bizitzak arriskuan jartzen» txostena kaleratu berri du. Bertan, biolentzia testigantza lazgarriak jasotzen dira.

Horietako bat Bunian dagoen Salama klinikako langile batena da. 2024ko urriaren 16an elkarrizketatu zuen gobernu kanpoko erakundeak.

«Askok hunkitu ninduen lauzpabost urteko haur baten

egoerak. Desplazatuentzako eremu batean zegoen. Bere ama hil egin zuten eta bera zaurituta zegoen. Erasotzaile batek eskua matxete batekin moztu zion babeslekutik atera zuenean. Eskua berriro noiz haziko zitzaion galdetu zidan. Horrelakorik ez zela gertatuko esan nion, erabiltzeko beste modu batzuk aurkituko zituela». Beste eskuarekin eta beso-sondoarekin garbiontzi bat hartzen ikasi zuen.

«2018an, nire herritik ihes egin nuen. Talde armatu bateko kideek nire herrixkari eraso egin zioten, pertsona asko hil zituzten. Gure ondasunak lapurtzeaz gain, gure etxea erre zuten. Nire anai zaharrena hil zuten. Erasoreen egunean, ihes egin nuen, ezer gabe. Bakarrik joan nintzen. Nire bi semeak beste norabide batean joan ziren. Astebete beranduago aurkitu nituen. Astebete bakarrik egon ziren basoan. Orain, 12 eta 15 urte dituzte; garai hartan, beraz, oso txikiak ziren», kontatu zuen 52 urteko emakume desplazatu batek. Une honetan Angumun bizi da, iheslarientzako kanpaleku batean Iturin, non biolentziak gora egin duen. MSFk biolentziaren gorakadaz ohartarazi du.

Bederatzi urteko haur batek, sabelean balaz zaurituta, bere ama eta bi anaiak matxete batekin zatika moztzen ikusi zituen, kabina batean ezkutatu aurretik, heriotzatik ihes egiteko. Negarrez hasi zen erasotzaileek alde egin zutenean. Inguruan zegoen gizon batek haren oihuak entzun zituen eta osasun-zentro batera eraman ahal izan zuten.

MSFko langileek jasotako beste lekukotza bat 4 eta 16 urteko bi ahizpena da, behin eta berriz jo zituzten buruan eta besoetan aihotzekin.



SEXU INDARKERIAREN GORAKADA.

Biolentzia sexualak ere nabar-
men egin du gora. Urtarrilean
eta otsailean 10.000 bortxake-
ta eta sexu indarkeria kasu
zenbatu zituen Unicefek. Ho-
rietatik, %35-45 haurrak izan
ziren. «Gatazkaren faserik go-
gorrean, haur bat bortxatu
zuten ordu erdiro», salatu
zuen James Elder bozeramai-
leak. Ohartarazi zuen egoera
«are dramatikoagoa dela na-
zioarteko laguntzaren (berezi-
ki Estatu Batuen) finantzake-
tan izandako murrizketen
ondorioz, hain trauma handi-
ko egoera batean biktimak
ezinbesteko babesik gabe ge-
ratzea eragiten ari baitira».

Urtarrilaren 27tik otsailaren
2ra bitarteko astean soilik, 42
osasun-zentrotan artatutako
bortxaketa kasuak boskoiztu
egin ziren. Horietatik, %30
haurrak ziren. Hala ere, «lite-
keena da benetako zifrak as-
koz handiagoak izatea, bizirik
irauten duten askok ez dutela-
ko salatu nahi izaten. Azken
urteetan ikusi dugun guztia
gainditzen du honek», nabar-
mendu zuen Catherine Russe-
llek, Unicefeko zuzendari
exekutiboak.

Emakumeei, bereziki, eraso
egiten zaie beren familiak eli-
katzeko bitarteko bila aterat-
zen direnean. Drodron, MSFk
2023an eta 2024an artatutako
sexu indarkeriaren biktimen
%84ri eraso egin zieten landa-
lanean ari zirela, egurra bil-
tzen ari zirela edo errepidean
zeudela. «Erasotzaileek bikti-
mei esaten diete 'oihukatzen
baduzu, hil egingo zaitugu'.
Biktimek esaten digute nahia-
go dutela isilik gelditu eta
lehenbailehen pasatzea. Ez
dute erresistentziarik jartzen
hil ez ditzaten, erasotzaileak
armak, matxeteak eta makilak
eraman ohi dituzte-eta», adi-

tzera eman zuen 2024ko ekai-
naren 20an elkarrizketatu zu-
ten MSFko emagin batek.

Nazioarteko komunitatea ea
Kongok bizi duen muturreko
biolentziaz jakitun den galde-
tuta, «ezezko» borobila ema-
ten du Ricardo Martinezek.


«Ez gara jabetzen munduko
alde hartan gertatzen ari de-
naz. Ez dugu ideiarik ere. Hain
da larria han gertatzen ari de-
na, non ez baitakit nola azal-
du», gaineratu zuen. «Goman
ditugun bi kliniketara egune-
ro 40-50 sexu indarkeria kasu
iristen zaizkigu. Egunero, egu-
nero», azpimarratu zuen.

Dena den, «ez dakigu sexu
indarkeriaren zenbat biktima
ez den etortzen estigmatiza-
zioa dela eta. Langile humani-
tarioen bitartez, biktimenga-
na iristen saiatzen gara. Kli-
nikara etortzearen garran-
tziaz jabetzeko sentsibiliza-
zio-kanpainak abian ipini di-
tugu. Auzoz auzo, komunitatez komunitate
doaz, sexu indarkeria eta bor-
txaketak pairatu dituztenak
eta haien ingurukoak kon-
tzentziazteko. Dagoeneko,
suizidioak ikusten ari gara, se-
xu indarkeriaren biktima as-
kok ezin dute gertatu zaiena-
ren zama jasan. Horregatik,
osasun mentala gure lanaren
lehen lerroan dago».

«Gizakiak beste gizaki bati
hainbeste kalte eragiteko
duen gaitasuna ikustea izu-
garria da. Pertsonak sufri-
tzen eta hiltzen ari dira ga-
tazka armatu bortitz honen
ondorioz, eta ez dugu ideia-
rik ere. Ez dakigu zer gerta-
tzen ari den Kongon, eta,
okerrena da, ez zaigu asko
axola», plazaratu zuen.

MINERAL ESTRATEGIKOAK

Bere hitzetan, «ahaztu egiten
zaigu energia berdeetarako



trantsizio horretarako Kongo
herrialde estrategikoa dela.
Hemen mineral ugari dago,
hala nola koltana, kobaltoa,
eztainua, zinka, kuartzoa. Mi-
neral horiek funtsezkoak dira
guretzat, eta tenperatura glo-
bala murrizteko helburuak

betetzea. Munduko Bankuak
ikerketak egin zuen mine-
ral horien ekoizpena %500
handitu behar zela oharta-
razteko, planetaren tenpera-
tura bi gradutan murrizteko
helburua lor dezagun. Oso
triste da, justizia klimatikoa
eskatzen dugunean, aldi be-
rean Kongorako justiziarik ez
eskatzea, nolabait haren abe-
rastasunaren mendeak ga-
relako. Eta ez gara ohartzen
zer gertatzen ari den han, in-
guru hark duen aberastasu-
naz baliatzen ari garenean.
Pertsona horiek argazkiaren
lehen lerroan jarri behar di-
tugu, hori da MSFk galdegi-
ten duena, zeren justizia kli-
matikoa eskatzen dugun

**«Ahaztu egiten zaigu, energia berdeetarako
trantsizio horretarako, Kongo estrategikoa
dela. Hemen mineral ugari dago, hala nola
koltana, kobaltoa, eztainua, zinka, kuartzoa»**

**Ruandak Kongori leporatzen dio FDLR talde
armatua (hutuak) eta beste milizia batzuk
tutsiak zapaltzeko erabiltzea. Kongok, berriz,
M23 laguntzea egotzi dio Ruandari**



rea, gure helburuak eta helburuak betetzea. Aldea hain da ikaragarria, ezen imajinaezina baita. Han egonda ere ez zara jabetzen».

«Adibide bat ipiniko dut. Gomaren inguruetan, 700.000 bat desplazatu zeuden. M23 taldeak hiriburua-ren kontrola bere gain hartu zuenean, 72 orduko epemuga eman zien horiei alde egiteko, gobernatzen duen eremuetan desplazaturik ez baititu nahi. Erraz esaten da, baina hiru egunetan ia milioi bat pertsona kanporatu zituzten. Bi urteko umetxoak kilometro luzeak oinez egiten euripean, emakumeak fardel piloa buruan eramaten, eta bizkarrean haurtxo bat. Komuneko egur zatiak kentzen ikusi ditut, horiekin berotu ahal izateko. Beraien jatorrizko herrietara itzularazi dituzte, baina zer egingo dute bertan? Orain ez da lurra lantzeko garaia. Zer jango dute? Pertsona hauen mina eta sufrikarioa gizagabeak dira», plazaratu zuen Martinezek.

«Oso kezkatuta gaude, zeren gatazka honek ez du etenik. 30 urte luze hauetan bospasei milioi pertsona hil dira, Nazio Batuen arabera. Ez dugu konponbiderik ikusten. Eta bitartean, pertsonak hiltzen ari dira; haur eta amen heriotza tasa goi-goian dago. Malnutrizioaren eta sexu indarkeriaren adierazle larriak daude herrialdean. Munduak errealtate honi bizkarra ematen dio. Ez dago adjektiborik egoera deskribatzeko».

Gobernuz kanpoko erakundeak hiru hamarkada daramatza lanean herrialde afrikarrean. Hori dela eta, azpiegitura aldetik, «biltoki eta ekipamendu handiak ditugu. Kongoko Osasun Ministe-

Unicefek ere sexu biolentziaren gorakadaz ohartarazi du. Urtarrilaren 27tik otsailaren 2ra bitarteko astean soilik, 42 osasun-zentrotan artatutako bortxaketa kasuak boskoiztu ziren

«Jatorrizko herrietara itzultzea behar dute, baina zer egingo dute bertan? Orain ez da lurra lantzeko garaia. Zer jango dute? Pertsona hauen mina eta sufrikarioa gizagabeak dira»

rioarekin lan hitzarmenak ditugu. Urtez urte osatzen joan garen oinarri honek baldintza hauetan lan egitea ahalbidetzen digu. Esan beharra dago gure abantailarik handiena bertako lankideak direla. Ere-muaz duten ezagutza handia oso lagungarria da baldintza txar hauetan. Tokian tokiko langile humanitarioak dira edozein interbentzioren oinarria. MSF bezala, bertako lan taldeen ekarpena eta garrantzia nabarmendu nahi ditugu, funtsezkoak dira».

«ASKO DUGU IKASTEKO»

Bere hitzetan, «haiengandik asko dugu ikasteko. Gu haien herrialdean eta eskualdean gaude. Ezinezkoa da gatazka armatuaren ondorioz gertuko senide bat galdu ez duen lankide bat topatzea. Ez bada eraso batengatik, bala galdu batengatik edo lapurreta batengatik, guztiek galdu dute senideren bat. Okerrena da badakitela amaierarik gabeko egoera bat dela. Gerra testuinguru batean jaio, bizi eta hilko direla dakite. Bakea egotearen esperantza galdu dute».

Horregatik, ezinbestekotzat jotzen du kongoarrei «ahotsa ematea, Kongokoa ikusezina den krisialdi horietako bat da eta. Bidegabeta da ahanzturan gelditzea». Martinez oso kritikoa da Mendebaldearen jarre-

rarekin. «Ez zaigu inporta gure mugetatik kanpo zer gertatzen den. Gure egunerokotasuna besterik ez zaigu inporta, eta ez gara konturatzen zer-nolako basakeriak egiten ari diren Gazan –bertan ere egon da MSFren misio batean, genozidio bete-betea– edo Kongon. Egunen batean ordainduko dugu, bueltan etorriko zaizkigu sarraski horiek. Lotsatu egiten nau Mendebaldeak Gazako genozidioa edo Kongon gertatzen ari diren basakeriak geldiarazteko neurri-rik ez hartzeak».

UGANDAN ETA BURUNDIN, ERAGINA

Inguruko herrialdeetan ere, Ugandan eta Burundin, egoera larria da. Urtarriletik, 28.000 errefuxiatu kongoar baino gehiagok ihes egin dute Ugandara, hau da, ia baino %500 gehiagok. Iritsi berrien testigantzek gatazkatik etsi-etsian ihes egitearen eta giza eskubideen urraketa larrien berri ematen dute. Ugandako harre- eta zirkulazio-zentro gehienetan zazpi aldiz pertsona gehiago daude gaur egun, eta ez dute behar adina ur, saneamendu eta aterpe. Finantzaketa-murrizketek gainezka utzi dituzte osasun-zentroak, eta haurren nutrizio txarra areagotu egin da, iritsi berriak dauden eremuetan elikadura-zentroak itxi egin direlako, salatu du Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariak.

Rugomboko komunan, Burundin, otsailetik hona iritsi diren 68.000 errefuxiatuetatik gehienak biltzen ditue-nean, instalazio egokirik ez egoteak eta estadioan eta pertsonak babesten aritu diren inguruetan pilaketak eta arreta mediko mugatua izateak gutxienez zortzi kolera kasu susmagarri eragin dituzte.

Barne desplazatuak
Gomatik gertu zegoen
Kimachini kanpalekutik
ateratzen, pasa den
otsailaren 11n.
Daniel BUUMA | MSF

bitartean, ahaztu egiten ditugu. Biztanleria ondorio izugarriak jasaten ari da, interes handiko eremu batean jaio delako. Hori bidegabeta da».

«Argi dago denok nahi ditugula energia berriztagarriak eta energia fosilik ez erabiltzea. Orduan zergatik ez ditugu kongoarrak argazkiaren lehen lerroan jartzen? Pertsona horiek beren bizitzekin ordaintzen ari dira. Bueno, bizitza esatea asko esatea da».

«Gure egunerokotasunak eta kongoarrenak ez du zerikusirik. Haien errealtatea eta gurea erabat paregabeak dira. Haiena eguneroko bizi-raupena da. Hurrengo egunera iristea dute helburu. Gu-